

Begiratura 2018ari



Hustu ditzagun errepideak eta kartzelak.
Hustu ditzagun letraz eskutitzak.
Bete ditzagun etxeak eta mahaiak.
Bete ditzagun hitzez aurrez aurreko solasaldiak.

Sekula ez gara ohituko hutsuneekin bizitzen.
Etxerako ordua da.

Urte berri on eta besarkada bero bat gure irakurleei



ELKARRIZKETAK:

06 Dabid Lazkanoiturburu:

Ultraeskuina eta ezkerre,
buruz buru Amerikan

10 Aimar Etxeberria

Ultraeskuina Europan, periferia
politikotik zentrora

12 Maite Ubiria Beaumont:

Horiz tindaturiko haserrealdia

14 Beñat Zaldua:

Katalunia, galdutako urtea edo
«impasse» saihestezina

20 Amagoia Mujika Telleria:

Elkarrizketa: Urtzi Errazkin, Etxerat
Elkarteko bozeramailea

26 Aitor Agirrezabal:

Altsasu; zalantzei, itxaropenarekin

28 Xabier Izaga Gonzalez:

Elkarrizketa: Enrike Garbaio eta
Armando Aulestiarte, Arabako
Pentsionistak Lanean

30 Iker Bizkarguenaga:


Cabacas auzia: Epaia badago,
justizia falta da



6



7



10



12



14



20



26



28



30

SINADURAK:

04 Iñaki Soto:

Iraultza ez omen da, honezkero,
telebistaz ikusiko

18 Iñaki Altuna:

1958-2018, ETaren
ibilbidea amaitu da

22 Amagoia Mujika Telleria:

Zeozer mugitu da, baina,
berriz min hau

Iraultza ez omen da, honezkero, telebistaz ikusiko

2018. urtea izango da, ziur asko, telebista komunikabideen artean nagusi izan den azken urtea. Zenith agentziak egindako azterketa baten arabera, iaz jendea telebista aurrean egunero Interneten baino 27 minutu gehiago egon zen batez beste. Aurten alde hori 13 minutura murriztu da. Joera hori ikusita, 2019an Internet telebistari gailenduko zaiola aurreikusten dute.

Gil Scott-Heron-ek 1974an grabatu zuen “The Revolution Wont Be Televised” abestia [<https://bit.ly/1bR5JXH>]. Beltzen eskubideen aldeko mugimenduaren lema erabili zuenean, ziur asko beste aldaketa sakonago batez ari zen. Aldaketa horiek, edonola ere, martxan daude. Orokorrean, 2018 emantzipazio mugimenduentzat urte oparoa izan dela esango nuke. Telebistaz, Internetez, paperean edo irratiz jarraitu ahal izan ditugu. Baita bultzatu ere.

AURTENGO HITZAK «FEMINISMO» IZATEN JARRAITZEN DU

Mundu mailan, aurtengo fenomeno politiko azpimarragarriena iraultza feminista izan da, inolako zalantzarik gabe. Mugimenduaren indarra aurretik zetorren, jakina. Adibidez, Internet bidezko hiztegieta espezialista den Merriam-Webster argitaletxe estatubatuarak “feminismo” 2017ko hitz garrantzitsuena bezala identifikatu zuen (*Word of the Year*), hitz horren erabilera %60 igo zela kontuan hartuta.

Oxford-entzat aurtengo hitza “toxiko” da. Hitz horren laguntzaile izan diren terminoak aztertuz gero, lehendabiziko postuan “kimiko” adjektiboa topatzen dugu, bai gerrari lotuta baita zaborren kudeaketa zitalari lotuta ere. Ezetz asmatu, “kimiko” horrez aparte, toxikoren abizen ohikoena zein izan den? “Maskulinitatea”!

Merriam-Websterrentzat aurtengo hitza “justizia” da. “Injustizia” ere izan zitekeen. Edo sinonimo bat: “justizia patriarkala”. Izan ere, injustiziaren dimentsioa no-

nahi ikusi ahal izan da aurten. Urrutira joan gabe, *La Manada*-ren auziaren harira Iruñeko mugimendu feministaren indarra mundu osoko pantailen bidez zabaldu zen. Berdin Martxoak 8ko grebaren kasuan.

#MeToo kanpainak asko lagundu du horretan. Harvey Weinstein predatzailearen erasoak publiko egin zirenean eztanda egin zuen. Kanpainaren sortzaile izan zen Tarana Burkerekin eginako elkarrizketa hau indar handikoa iruditut zait (gaztelarazko bertsioa): <https://nyti.ms/2BF5Y2c>.

BESTE ALDEAN BELDURRA EGON BADAGO

Indar emantzipatzaileen eta erreakzionarioen arteko talka egungo aro historikoaren ardatz nagusia izango da. Hein handi batean, beldurraren eta itxaropenaren arteko kontrastea izango da borroka horiek guztiak baldintzatuko dituen dialektika morala.

Beldurra sistemaren balio eta tresna nagusia bihurtu da. Konplexuagoa izan arren, Naomi Klein-ek “Shock doktrina” lanean identifikatzen zuen patroia behin eta berriro errepi- katzen da. [Konplexutasun horretan interesa izanez gero, irakurri Walden Belloren aspaldiko kritika hau (ingelesez): <https://bit.ly/2AcHT2D>].



Aseezinak izan arren, boteretsuenen hauskortasuna agerian geratu da 2018an.

Joel SAGET | AFP



Brett M. Kavanaugh epailearen hautaketaren aurkako salaketa boterearen muinera zuzendu zen, baita sinbolikoki egin zenean ere. Jim WATSON | AFP

Beste alde batetik, erreakzioaren atzean dagoena beldurra ere badela azpimarratu behar da. Boterea, pribilegioak, estatusa... galtzeko beldurra da atzerakoiak mugitzen dituen sentipeneta-ko bat. Ezinegon hori indar atzerakoientzat bulkada garrantzi-tsua izan da aurtan. Indar aurrerazaleek maiz ikusten ez duten arren, atzerakoiek alor askotan galtzai-
le ikusten dute beren burua. Indar as-
katzaileek, ordea, nekez ikusten dute
beren burua garaile. [Rebecca Solnit ai-
patuko dut, enegarrenez orrialde haue-
tan, garaipenez eta itxaropenaz egiten
duen irakurketa benetan iradokitzailea
baita: <https://bit.ly/2CxCPkE>]. Ezine-
gon utopikoak ez luke errealismo poli-
tikoa estali behar. Lehenik eta behin,
beraiek irabaztea guk irabaztea baino
askoz errazagoa delako.

Adibidez, Mexikon Lopez Obrado-
rrek irabaztea Brasilen Bolsonaro-
rek irabaztea baino askoz harrigarriagoa da. Batetik zein bestetik ikasi
beharko luke ezkerak. Hori bai, kolpismo instituzionalizatuak
hartu duen indarrak gogoeta merezi du. AEBak, Brasil, Polonia,
Hungaria... gero eta zabalagoa da hauteskunde bidez autoritaris-
moa eta totalitarismoa zabaltzen diren tokien zerrenda. Jakina,
alor horretan Espainia beti da hautagai.

KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIA MANIPULAZIO TOXIKOAREN AROAN
Artikuluaren zehar kanpainei buruz eta komunikazio politi-
koari buruz hitz egin dugu. Alor horretan, Facebookentzat
urte beltza izan da. Hain zuzen ere, horrelako kanpainetan
egindakoengatik zigorra jaso du, ez behar bestekoa baina

Indar aurrerazaleek maiz ikusten ez duten
arren, atzerakoiek alor askotan galtzai-
le ikusten dute beren burua. Indar
askatzaileek, ordea, nekez ikusten
dute beren burua garaile

bai latza. Oraindik botere itzela du, baina telebistaren bur-
buila baino lehenago eztanda egiteko arriskua ere badu.
Komunikabideez ari garela, gurean urtez urte hitz garrantzi-
tsuena “komunitate” dela esango nuke. Edonola ere, datorren ur-
teari begira, apuntatu beste hau: “transmedia”. Hori bai, ez eska-
tu definizio bat, praktikaren bidez definituko baitugu. •

{ Ultraeskuina eta ezkerria, buruz buru Amerikan }

Nolatan eskuratu du ultraeskuinak boterea Brasilgo azpikontinentean

Dabid LAZKANOITURBURU

Zer dela eta bilakatu da inolako disimulurik gabe ultraeskuindar peto-petoda den hautagai bat Hego Amerikako herrialderik handieneko, populuaren eta ekonomikoki garrantzitsueneko presidente hautatu? Nola da posible ezkerrek hamahiru urte luzez gobernatu ondoren Jair Bolsonaro faxistak hauteskundeak hain aise irabazi izana, bai lehen itzulian bai bigarrenean?

Erantzuna, hobeto esanda erantzunak, bi galderon baitan bertan aurki daitezke. Hego Amerikako azpikontinentea kontrolatzea ezinbestekoa zaie Brasilgo botere ekonomikoari eta, oro har, kontinente-ko *statu quo*-ari. Horrela bada, aurreko mendearen bigarren erdialdean Brasilek bizi izandako matxinada politiko eta soziala suntsitzeko ez zuten inolako arazorik izan militarrek boterean jartzeko. 1966tik 1985era bitartean Brasilen agintean izan zen Junta Militarren nostalgikoa da, hain zuzen ere, Bolsonaro bera, paraxutisten kapitain izan zen militar ohia. Nostalgikoa baina bide batez kritikoa, Bolsonaroren eta bere inguruko iritziz erregimenak ez baitzuen «potrorik eduki» garai hartan 30.000 ezkertiar erail eta desagerrarazteko, Argentinan beren hurkoek egin zuten bezala.

Iraganak iragan, baina, Bolsonaroren garaipen erraza Brasilgo ezkerren arrakastan eta hanka-sartzeetan oinarritzen da hein handi batean. Luiz Inazio Lula da Silva sindikalistak 2002an PT Langileen Alderdiari garaipena eman zionetik izugarria izan zen pobrezia aurre egiten eta giza laguntzaren arloan ezkerreko gobernuak egin zuten lana. 30 milioi brasildar txirotasunetik atera ziren eta beste asko klase ertainera hurbildu ziren. Zentzu horretan, ez ziren gutxi egoera sozial

berria mespretxuz edo gutxienez begiak okertuz ikusten zuten brasildarrak. Urte- etara, gainera, batik bat 2008ko krisi globala gorabidean diren herrialdeetako ekonomia astintzen hasi zenean 2013an, haserreak eztanda egin zuen. Klase ertainak bere egoera ahultzen zela ikusi eta pobreak egin zituen errudun. Bide batez, PT, beste alderdi guztiekin batera, ustelkerian goitik behera murgildu izana aitzakia gisa erabili zuten botere ekonomikoek ezkerriari kontuak eskatzeko.


Krisi ekonomikoak eragindako egonezina baliatuz, lehenik guztiz errugabea zen Dilma Rousseff presidente kargutik bota zuten botere ekonomikoek, eta, gero, Lula bera, 13 urte lehenago eurenkin nolabaiteko aliantza sinatu zuena Sao

Pauloko burgesiarekin boterea partekatze-ko. Aliantzak aliantza, baina, Lula atxilotu egin zuten, hauteskundeetara aurkezteko zituen asmoak, eta irabazteko aukerak, ekidinez. Hondartzako apartamentu baten jabegoagatik eta ustelkeria auzi txiki bategatik zigortua izan ondoren ere, Lula bera baitzen faboritua.

Sao Pauloko gobernadore ohi Geraldo Alckmin zen enpresa gizonek hauteskundeak irabazteko haututako gizona, baina apustuak porrot egin zuen, lehen itzulian ikusi zen bezala. Ordurako lehian aurretik zen Bolsonaro, “Triple B” izeneko hirukoaren laguntzarekin: *Biblia, Boi e Bala*, hau da, eliza ebanjeliko- etako kideak, abeltzain handiak eta militar- tarrak. Bigarren itzulia, urri bukaeran,



are eta aiseago irabazi zion (%55) Lula presoaren oinordekoari, Fernando Haddadi. Horrenbestez, Brasilek politikari ultraeskuindarra du boterean. Jainkoak babes ditzala brasildarrak eta zigor ditzala errudunak. Benetako errudunak, ez ezkerria.



Jair Bolsonaro, Brasilgo Hauteskunde Batzordeak bere garaipena iragarri zuen unean. Evaristo SA | AFP

Ezkerraren uholdeak Mexiko astindu duen urte berean

Dabid LAZKANOITURBURU



Brasil Latinoamerikako erraldoi ekonomikoa eta demografikoa den moduan, historian zehar Mexiko izan da erreferente politikorik emankorrena. Ezin da ahaztu mexikarrek bultzatu zutela munduan

eman den lehenetariko iraultza soziala, 1910tik 1917ra bitartean, Errusiako Iraultzaren aurretik.

Errusian bezala, hasierako iraultzak trizio ugari jasan zituen Mexikon ere, eta, horren erakusle, 1929az geroztik PRI Alderdi Iraultzaile Institutuzionalak –horra hor kontraesana!– prozesu politikoa bahitu zuen. Hala ere, egon izan dira politika aurrerakoiak edo kutsu sozialista zutenak bultzatu izan dituzten agintariak Mexikon, Lazaro Cardenas jenerala kasu (1934-1940). Benito Juarez (1861-1872) aitzindaria ere ezin ahaztu, noski.

1968an mundu osoan izan ziren altxamenduek isla izan zuten Mexikon ere, militarrek ehunka hildako eragin zituen Tlatelolcoko sarraskiarekin amatatu bazuten

ere ikasleen errebolta. Hiru Kulturen Enparantzako ikasleen sakrifizioak, baina, hazia erein zuen, eta, 1988an, lehen aldiz, ezkerreko agintari batek hauteskundeak irabazi zituen. Cuauthemoc Cardenas PRIko kidea izana zen, baina, alderdiaren noraeza ikusita, beste batzuekin batera berau utzi eta Mexikoko Iraultzaren eredua berreskuratzen saiatu zen. Erregimenak, ordea, iruzurra egin eta PRI alderdiko Carlos Salinas de Gortariri eman zion garaipena. Salinas de Gortarik eman zien hasiera «konpadreen kapitalismoan» eta AEBekiko mendekotasunean oinarritu diren azken 30 urte luze eta beldurgarriei, Mexiko ia-ia porrot egindako estatu bihurtu dutenak.

Egoera ikusita, Andres Manuel Lopez Obrador (AMLO) politikari eta idazle ez-

kertiarraren figura nabarmentzen hasi zen Mexikon, jende arruntaren ezinegona bideratzeko moduko politikari gisa. Zapatismoak Chiapasko altxamenduarekin ongi etorria eman zion mende berrian, Cardenasek bere garaipena lapurtu ziotela ikusita sortutako PRD Iraultza Demokratikoaren Alderdiko kide egin zen AMLO. Ez hori bakarrik, Mexiko Hiriko gobernadore ere bilakatu zen herritarren babes izugarriarekin; ostean, Mexikoko presidente izateko aurkeztu zuen bere burua 2006an eta 2012an, egun MORENA mugimendua bilakatu den koalizioaren eskutik. 2006an, Cardenasek pairatutakoaren pareko iruzurra salatu zuen AMLOk, eta, 2012an, bigarren geratu zen, iparralde industrializatuan eta mendebalde garatua beharrezko botoak lortu ez zituelako. 2018ko uztailaren 1ean, ordea, AMLOk eta MORENAk Mexikoko hauteskunde batzuetan sekulan izan gabeko emaitzak lortu zituzten: 30 milioi boto tik gora, hau da, hautesleria osatzen duten 88 milioi herritarretatik bozkatu zutenetatik %53.

Lehen aldia da Mexikoko historian ezkerreko mugimendu batek hauteskunde en bitartez boterea eskuratzen duela. Presidente berriak abenduaren 1ean hartu zuen kargua eta hasieratik ekin dio ustelkeriaren eta boterean daudenen pribilegioen aurkako ekintza sinbolikoak egiteari. Dionez, gainera, presidentearen hegazkinari eta Los Pinosko jauregi erraldoiari uko egitea hasiera baino ez da. Bere asmoa globalizazio prozesu betean ezkerreko alternatiba egon badagoela frogatzea da, eta, hala, aurkeztu berri dituen aurrekontuetan, txiroen babesa eta kanpo inbertsioak bateratzea du helburu. Ez du AMLOk kapitalismoa jomugan, Mexikoko Errepublika birpiztea baizik. Utzi ko al diote? Galdetu Lulari.



Lopez Obrador prentsaren aurrean hitz egiten, Mexikoko Jauregi Nazionalan.

Alfredo ESTRELLA | AFP



Bandera britainiar eta europarra, Westminster atarian. Tolga AEKMEN | AFP

IKUSMIRA

BRITAINIARRAK, AMILDEGIAREN ERTZEAN

Erraza behar lukeena ia ezinezko bilakatzen denean, apenas geratzen da esperantzarako tarterik. Kasik bi urte eta erdi behar izan dituzte Bruselak eta Londresek Erresuma Batuak Europar Batasuna modu ordenatuan utz dezan akordioa ixteko. Bi urte eta erdi lan errazetak osatzeko, benetako erronka ondoren datorrena baita -etorkizuneko harreman ekonomikoa zehaztea, kasu-. Iragan azaroan itxi zuten akordioa Gobernu britainiarrak eta Europar Batzordeak; anabasa da

nagusi orduz geroztik. Izan ere, Bruselan itundutakoa Westminsterretik igarotzeko ezgai da lehen ministro britainiarra. Halakorik lortu ezean, akordiorik gabeko Brexita eman daiteke, hasiera batean aldeek saihestu nahi duten agertokia. Datorren martxoaren 29a -britainiarrek Batasuna utziko duten eguna-, baina, gerturatzen ari da, eta, lehenengoz, akordiorik gabeko Brexitari aurre egiteko prestaketa lanak abiatu dituzte bi aldeek. Amildegia gero eta gertuago dute britainiarrek; alta, buelta erdia eman eta lehengo bidera itzultzeko aukera dute.

Aimar Etxeberria



Urri hasieran abiatu ziren mila bat lagun Hondurastik, gosea eta heriotza atzean utzi nahian. Migratzaileen karabanak bi hilabete baino gehiago darama AEBetara bidean eta azken datuen arabera 8.000 eta 10.000 pertsona artean dira herrialdea zeharkatu nahian dabiltzanak, talde desberdinetan. Trumpek ez die harrera berorik egingo. Pedro PARDO | AFP



Nadia Murad eta Denis Mukwege izan dira aurten Bakearen Nobel saria jaso dutenak, sexu indarkeriaren kontra egindako lanagatik. Murad yezidia da eta Estatu Islamikoaren esklabo izan zen. Ihes egitea lortu zuen eta jasan zituen abusuak salatu zituen. Esklabo izan diren pertsonen duintasunaren alde egin duen lanarengatik saritu dute. Sabah ARAR | AFP



Milioi bat inguru dira Myanmarko Rakhine estatuan bizi diren rohingyak. Zaila da zehazki zenbat diren jakitea, inork ez baitu zenbatu. Beste hainbeste dira dagoeneko inguruko herrialdeetara ihes egin behar izan dutenak. Baina inork ez ditu nahi. Herri oso bat paria izatera bultzatzeak zer ekarriko duen ikusteko dago. Ye AUNG THU | AFP



Ahed Tamimi 16 urteko palestinarra kartzelan preso eduki dute zortzi hilabetez. Soldadu israeldar bati zaplazteko bat eman eta une hori jasotzen duen bideoa sare sozialetan zabaltzea izan da bere delitua. Tamimi erresistentzia palestinarraren ikur bihurtu da, hainbeste herritarrek pairatzen duten bortizkeria ezagutzera eman duelako. Musa AL SHAER | AFP



Annegret Kramp-Karrenbauer izango da Alemaniako CDU Batasun Kristau Demokratako buruzagia. Hartara, Angela Merkelen lekukoa hartuko du eta hemezortzi urtez oso batuta egon den alderdia zuzenduko du. Bere irudia Merkeli oso lotuta dago eta askoren hitzetan «Merkel Txiki» da. John MACDOUGALL | AFP

{ analisia } **Aimar Etxeberria**

Periferia politikotik zentrora

Egoskorra da errealtatea, tematia. Maiz, begi aurrean jartzen digu erakutsi nahi digun hori; pertsonak gara, ondoren, bata edo bestea ulertzea erabakitzen dugunak. Are nabarmenagoa suertatzen da esandakoa zenbakiez ari garenean. Esaterako, zenbat da 117.540? Eta zenbat 1.015.078 zifrarekin alderatuta? Antza denez, bada oraino bi zenbakion arteko ezberdintasuna ulertzen ez duenik.

117.540 da aurten –abendua-ren 18ra bitarte bederen– zoru europarrera iritsi den immigrante kopurua Nazio Batuen Erakundeak emandako datuen arabera; 1.015.078 izan ziren, aldiz, orain hiru urte, migrazio fluxuak gorenean ziren unean, bizi berri baten esperoan Europako ateak jotzera iritsi zirenak. Hiru urteok emankorrak izan dira eskuin muturrarentzat European; ertzeko aukera politiko izateari utzi dio, zentrora gerturatzeke –eta zenbait kasutan, hartzeko–.

Immigrazioa da, terrorismoarekin batera, kontinente zaharreko herritarrak gehien arduratzen dituen afera. Hala ondorioztatu du, bederen, iragan ekainean publikatu eta bi urtean behin argia ikusten duen Eurobarometroak. 510 milioi pertsona bizi dira Europar Batasunean –herritar bakoitzeko, beraz, 0,02 immigrante iritsi dira Europara azken urtean–, eta %38k adie-

Ur nahasian arrantzan dihardu ultraeskuinak European. Immigrazioaren afera aitzakia, urteetan landutako haziaren fruituak jasotzen ari da. Hala, periferia politikoa utzi eta zentrorako bidea egin du, hauteskunde europarrak ortzimugan diren honetan.

razi dute immigrazioa dela gehien kezkatzen dituen kontua. Paradoxikoki, pertsonako immigrante proportzio baxuenak dituzten herrialdeak dira etorkinen iritsierak gehien arduratzen dituenak: Estonia, Txekiar Errepublika eta Hungaria.

Ertzetik zentrora

Hazia ereiteko lur emankorra topatu du eskuin muturrak immigrazioan. Iruditegi bat eraikitzea lortu du, etsai komun bat marraztea. Ez da aurten etorkinen iritsiera masiborik ikusi gure pantailetan, baina berdin jarraitu dute immigranteek bizia galtzen Mediterraneoko urtean; 2.230 etorkin inguru hil edo desa-

gertu dira azken urtean Europara iristeko zeharkaldian.

Fenomeno honi azalpena ematen ahalegindu dira Roger Eatwell eta Matthew Goodwin akademiko britainiarrak iragan urrian argia ikusi duen “National Populism: The Revolt Against Liberal Democracy” liburuan. Euren esanetan, zenbakiek erakusten dute Europa ez dagoela migrazio krisi larri baten erdian; era berean, baina, aitortzen dute immigrazioaren afera dela uneotan Batasunaren mehatxu nagusia. «Ez du etorkinen iritsiera objektiboak Europako eskuin muturreko mugimenduek jasotzen duten babes sozialean zuzeneko eraginik. Erraza da gizarteak dituen beldurak aireratzea, eta immi-

grazioaren afera erabil erraza da horretarako», adierazi dute. Areago, eraginkorragoa suertatzen da fenomenoak etorkin kopuru txikia duten herrialdeetan, Hungarian kasu.

Italiako Lega eta haren buru Matteo Salvini dira, besteak beste, paradigma horren erakusgarri. Italiara etorkin uholdeak iristen ari ziren garaian –181.436 etorkin 2016an– erein zuen hazia Legak, eta orain ari da jasotzen ereindakoaren fruitua. Boto-emaleen %5en babesa zuen alderdiak politikari milandarrak Legaren lidergoa hartu zuenean, 2013an; egun, berriz, %30 gaindiko babesa iragartzen diete inkestek, aurten bertan hauteskundeak irabazi dituen M5S mugimenduaren aurretik. Ertzetik zentrora.

Immigrazioaren aurkako jarrerak bilakatu du Salvinik denbora honetan bere politiken ikur eta, antza denez, asmatu du erabakian. Ez du Salvinik harresirik altxa, baina portuak itxi dizkie Mediterraneoa zeharkatzen zihardutenei. Herrialdera iristen den etorkin kopurua kontrolatu nahi du, Italian bizi den ijito komunitatea zenbatu nahi duen bezala. “Soilik” 23.131 immigrante iritsi dira aurten Italiara, baina horrek berdin dio Salviniri; behin iruditegia eraikita, uzta jasotzen dihardu orain.

Ez da Salvini, ordea, estrategia hori erabiltzen duen politikari europar bakarra, ikasle aurreratuen izanagatik. AfD

alemaniarra, esaterako, da nazismoaren ostean Bundestagera sartzea lortu duen eskuin muturreko lehen alderdia. Herrialdean, inflexio puntu izan dira aurtan Bavariako hauteskunde estatutak. Bertan, inkestek iragarritako aurreikuspenak bete ez diren arren, izan dute eraginik AfDko ultraeskuindarrek, batez ere Bavarian hegemonikoa eta aldi berean Angela Merkel kantzilerraren CDU alderdiaren aliatu historikoa den CSUren immigrazioaren aurkako diskurtsoa gogortzen. Periferiatik zentrorako bidea egin dute horiek ere.

Badira, era berean, zentro politikoa aspaldi ezaguna duten mugimendu ultraeskuindarrak, aurtengoan ere zeresana eman dutenak. Horien artean dago nola ez Viktor Orban hungariarra eta bere Fidesz, zeinaren aurka aurrekaririk gabeko gaitzespen keinuak bultzatu dituen Europar Batasunak. Urteak daramatza Orbanek Hungariako justiziaren independentziaren aurkako neurriak hartzen eta, era berean, gobernu kanpoko erakunde eta prentsa askatasunaren aurka egiten. Lega, AfD eta enparauen ildotik, etorkin gabeko herrialdea du amets Orbanek eta, ondorioz, uko egin izan dio errefuxiatuak Europar Batasuneko herrialdeen artean banatzeko erdie-tsitako akordioari.

Orbanen Hungariak badu aliaturik eremu hurbilean:



Matteo Salvini (Lega) italiarra da aurtengoan buruzagi europarren artean zeresan gehien eman duen politikaria. Filippo MONTEFORTE | AFP

Polonia. Poloniarrek dira Bruselan hungariarren defentsan ateratzen lehenengoak, eta ez dira atzean gertatzen migratzaileen aurkako ekinbidean. Bereziki beldurgarriak suertatu dira Poloniaren independentziaren mendeurrenaren ospakizunak; 60.000 ultraeskuindar inguruk, Gobernu zentralaren babesarekin, hartu zituzten Varsoviako kaleak, kontsigna arrazistak aireratuz. Aldarrikapenen artean, “Europa zuria” eta “Ez islamari” bezalako oihu arrazistak.

NBEren paktuak, krak
Ia oharkabean pasa bada ere, ezin aipatu gabe utzi Nazio Batuen Erakundearen Migrazioarako Munduko Ituna, iragan azaroaren amaieran Marrakexen sinatua. 2015eko errefuxiatuen krisiaren tes-

tinguruan abiatua, hiru urte behar izan dituzte nazioarteko agintariek apenas eraginik izango duen akordioa erdiesteko. Izan ere, Hungariak, Austriak, Bulgariak, Txekiar Errepublikak, Poloniak, Suitzak, Eslovakiak eta Italiak, besteak beste, uko egin diote akordioa sinatzeari. Izan da, era berean, ituna sinatu baina aferak eztabaida politikoa gaiztotu duen herrialderik, Alemania, Herbehereak eta Belgika adibidez. Azken horren kasuan, esaterako, Gobernu zentrala erortzea eragin du ituna sinatu izanak.

Horrek argi erakusten du immigrazioaren aferak lur emankorra izaten jarraitzen duela Europako eskuin muturrearentzat. Hori guztia, gainera, hauteskunde europarrerako bost hilabete baino ez direnean falta.

{ analisis } Maite Ubiria Beaumont

Horiz tindaturiko haserrealdia

Hemezortzi hilabete. Hori zen Emmanuel Macronek Eliseoan zeraman denbora inork iragarri ez zuen eztanda soziala gertatu zenean. Facebook sare sozialetik zabaldu zen deialdiak helburu zehatza zuen: 2019ko urtarrilean erregaien gainean indarrean sartzekoa zen tasa berriaren aurka protesta egitea. Aukeratu-tako ikurra, gidari guztiek autoan eraman behar duten jantzia: txaleko horia.

Azaroaren 17an, lehenengo ekimena zinez arrakastatsua suertatu zen. Ehunka mila herritar xume, ordura arte bere kexa isilean atxiki zutenak, karrikara atera ziren. Hobe esanda, bidegurutzeetan, autobideetako ordainlekuetan eta borrokaren kokaleku sinboliko bilakatuko ziren biribilguneetan plantatu ziren. Aski fite gizartearen gehiengo zabalak beraiekin bat egin zuen. Finean, mugikortasun eredua eta bizi baldintzen prekarizazioa, baita lurraldeen arteko desorekak ere, jopuntuan ezarri zituen protestak ispilu bat eskaini zien herritarrei. Hartara, herritar askok injustizia sozialaren miraila horretan beraien potreta deskubritu zuten. Konexioa egina zen herritarren artean, baita deskonexioa ere kalearen eta boterearen artean. Lehen ekimen jendetsuaren ostean, beste bost bat erronka bota zituzten beren arrangura horiz jantzi zuten suminduek.

Estatu frantseseko landa eremuetatik Paris hiriburura jauzi

Errebolta sozialari mespretxuz erantzun zion Gobernua zeharo higituta atera da txaleko horien krisitik. Azkenean, hilabete bukaerara iristeko zailtasunak dituzten herritarren alde zenbait neurri aringarri hartu behar izan ditu Macronek boterean irauteko

eginez arriskua hartu zuten, baina horretan ere asmatu zuten. Manifestodromo ofizialak –Republique edo Nation plazak– alboratu eta botereguneetara jo zuten, hartara erakunde politiko nagusien egoitzak hartzen dituen Parisko hiri barrutia astinduz. Larunbatetik larunbatera Eliseoko Zelaiak etorbidea okupatzeko deialdia eginez, denboraren kudeaketa zurruna aginduz, krisiaren hasieran bere bide orria inoiz ez zuela aldatuko hitz eman zuen Gobernuaren posizioa ahultzea lortu zuen arautu gabeko mugimenduak.

Horren aurrean, Gobernuak akats bikoitza egin zuen azaroaren hondarrean. Lehenik eta behin, Parisek ez zuen gaitasunik erakutsi karrikatik heldutako haserrearen behar bezala ezagarritzeko. Aurreko hilabeteetan erreforma bat bestearen atzean

onarrarazia zuen presidenteak, baldintza berezietan lorturiko gehiengoa neurririk gabe baliatuz: lan erreforma, SNCFko estatutua, hezkuntza, osasungintza, pentsioak... Irizpide liberalak jarraituz arautze esprint azkarra agindua zuen Macronek.

Deskonexioa

Sindikatuak eta ezkerreko oposizioak protesta egin zuten Macronen neurrian aurrean, baina Eliseora heldu berria zen errege ahalguztidunaren aurrean ez ziren indar korrelazioa aldatzeko gai izan. Txaleko horiekin parametro berdinekin jokatzeko hautu eginez, aldiz, hanka sartu du Macronek. Mespretxua eta irmotasuna adieraziz herritar ezezagunok etxera itzularazteko konfiantza itsuz jokatu zuen. Horra hor lehen akatsa. Bigarren petoa hilabete batzuk lehe-

nago koka daiteke, nahiz eta bere benetako eragina udazkeneko krisiaren bidez azaleratu zen. Uda aurretik zartatu zen “Bena-lla auziak” argiki erakutsi zuen V. Errepublikaren gaitzek –botere gehiegikeria, bezerokeria, jarduera ez demokratikoa– Macroni ere eragiten ziotela. Hartara, ustezko agintari berritzailea *establishment*-aren ordezkari gisa agertu zen. Hori gutxi ez eta ondasun handien gaineko ISF zerga kentzeko erabakia hartu zuen, azkeneko krisiaren kalteordainak pairatu zituzten herri sektoreen aurrean «aberatsen presidente» gisa agertuz.

Gauzak horrela, ikasturte hasierari inkestetan emaitza oso txarrak lortuz ekin zion Macronek. Dinamika politikoaren faltan, komunikazio makina olioztatu zuen. Orduan egin zuen eztanda bigarren akatsak: bere politikek herritarrengan sorturiko ezinegonaren tamainaz ez zen ohartu. Beste era batera esanda: ez zen ohartu Gobernuaren diskurtsoa ez zela gizartearengana heltzeko gai. Egoera horretan, inprobisazioa bilakatu zen Errepublikaren ildo berreskuratzeko xede zuen macronismoaren ihesbidea: erregaien gaineko tasa eten, oinarritzko soldata igo, pentsioen gaineko zerga ezabatu... 8-10 miliar denon kutxatik atera eta haserrealdia baretzera bideratu zituen presidenteak. Azken finean, hilabete bukaerara iristeko zailtasunak zituzten herritarren alde neurri aringarriak onartu behar izan zituen Macronek boterean irauteko.

Kronologia

AZAROAK 17

Facebooken bidez zabalduko deialdiari erantzunez lehenengo protesta ekimena egin zuten txaleko horia soinean zeramaten milaka herritarrek. Errepideetan eta autobideetako ordainlekuetan blokeoak eginez bai erregaien gaineko zergaren aurkako jarrera bai hilabete bukaerara iristeko langileen sufrimendua irudikatu zituzten. 300.000 manifestari inguru atera ziren karriketara.



Haserre adierazteko txaleko horia. Georges GOBET | AFP

AZAROAK 24

Bigarren ekimenaren oihartzuna zabalteko xede Parisera joateko deialdia egin zuten txaleko horiek. Eliseoko Zelaia etorbidean asfaltitik Parisen ikusten ez ziren irudiak eman ziren -besteak beste «larrialdi egoeraren» eraginez askatasunak asko murriztu direlako-. Orotara 166.000 manifestari atera ziren kalera, betiere Barne ministerioaren arabera. 630 pertsona atxilotu zituzten Hexagonoan.

ABENDUAK 1

Hirugarren larunbata. Barne Ministerioak salbuespen neurriak baliatu zituen -300 atxilotu keta prebentibo agindu zituen Parisko prefekturak- txaleko horiei aurre egiteko. Izan ere, Parisko Garaipen Arkuaren inguruan istilu larriak izan ziren. Egun horretan errepideetako blokeoetan dagoeneko hiru herritar hilak zirela jakitera eman zuten.

ABENDUAK 4

Bere politikari eutsiko ziola agindua zuen Gobernuak estrategia aldatu behar izan zuen. Edouard Philippe lehen ministroak sei hilabetez erregaien gaineko tasa eteteko -ondoren

bertan behera uzteko- erabakia jakinarazi zuen, beste hainbat neurri iragarri. Mezua ez nahikotzat hartu zuten manifestariek, berriz ere Parisen elkartzeko deia zabalduz.

ABENDUAK 8



Istiluak Parisko Garaipen Arkuan. Van der HASSELT | AFP

Laugarren larunbata. Hiriburua guztiz militarizatu zuen Gobernuak estatu polizialaren irudia eman. Egun batzuk lehenago Nantes-La-Jolie hiriko lizeotako ikasleek pairatu zuten atxilotu masiboak poliziaren jokabideari buruzko ika-mika eragin zuen. Istilu larriak izan ziren Parisen, baita beste hainbat hiritan ere. Hain zuzen ere, Bordelen, Baionako herri-



Ikasleen jazarpena salatu dute herritarrek. SALOM | AFP

tar batek, Antoine Boudinetek, eskuin eskua galdu zuen polizia batek jaurtitako granada batek eztanda egin zionean. Arma lanjerosa hori guztiz debekatzea xede salaketa ezarriko du gazteak frantziar Gobernuaren aurka.

ABENDUAK 10

Protesta ahultze aldera Gobernuak eginiko kriminalizazio saiakera guztiek porrot egin zuten. Inkesten arabera frantziar herritarren %70ek protesta babesten jarraitzen dute. Presiopean, Macron lehen lerrora itzuli zen. Elkarriketa sarea ireki eta telebistaren bidez mezua zabaldu zuen. Krisia baretzeko hainbat neurri iragarri zituen 23 milioi ikusleren aitzinean: oinarritzko soldata 100 eurotan igotzeko asmoa agertu zuen, beste hainbat neurriren artean. Txaleko horiek mesfidantzaz hartu zituzten erabaki horiek.



Protestari bat, Macronen diskurtsoa entzuten. RTL

ABENDUAK 15

Bosgarren larunbata. Ustezko jihadistak batek atentatu bat egin zuen abenduak 11n Estrasburgon. Bost pertsona hil zituen, poliziak erasotzailea hil aurretik. Gobernuak protestak gelditzeko gomendioa zabaldu zuen. Mugimendu horiaren baitan kontraesanak sortu ziren. Moderatuak bat etorri ziren Gobernuarekin, elkarriketari ekiteko deia egin. Hala ere, protestak izan ziren. Are, lehen aldiz klima aldaketaren aurkako ekintzaileak eta txaleko horiak karriketan elkartu ziren.

ABENDUAK 22

Seigarren larunbata. Mobilizazioak izan ziren errepideetan zein Parisko karriketan. Hori bai, askoz jende gutxiago atera zen kalera. Makila eta azenarioa: poliziari biribilguneak jendez husteko agindua eman zion Gobernuak bere gehiengo baliatu zuen legebiltzarrean Macronek iragarritako neurriak onartzeko. 10 lagun hil dira jada protesta abiatu zenetik.

KATALUNIA, GALDUTAKO URTEA EDO «IMPASSE» SAIHESTEZINA

Beñat ZALDUA

Errepresioak eta independentismoaren barne liskarrek markatutako urte zaila eta nahasia izan da aurtengoa Katalunian. 2017ko gertaerak aztertu, asimilatzen saiatu eta arnasa hartzeko urtea ere izan da 2018, halabeharrez, jada ate joka den 2019ak ez baitu aisiarako denbora gehiegirik utziko.

Hemendik urte batzuetara, Kataluniako prozesuaren kronologia idazten dugunean, ziurra da 2018. urteak ia ez duela espaziorik beteko. 2017ko erreferendumaren eta 2019ko epaiketaren artean kokatuko ditugu urte nahasi honi buruzko tramitezko lerro gutxi batzuk. Eta hala ere, gauzak gertatu dira. Are gehiago, gertatu ez diren gauza batzuek ere lagunduko digute gertatutakoak ulertzen.

Ezkerrean, gizonetzko preso politiko katalanak, Lledoners kartzelan. Erdian, Bartzelona jendez lepo aurtengo Diadan. Eskuinean, Ines Arrimadas Ciudadanoseko burua Katalunian, Parlamentuan.
OMNIUM - ANC - PARLAMENT

Errepresioaren urtea izan da, lehenik eta behin. Kataluniako gizartearen gehiengo handi batek azken lau hamarkadetan ezagutu ez duen errepresio bat. Ez da perspektiba hori galdu behar, alde-raketak gehiegirako balio ez dutela ez ahazteko. Carles Puigdemont Kataluniara itzultzeko promesarekin aurkeztu zen duela urtebeteko hauteskundeetara; era berean, 2017ko abenduan Oriol Junqueras kartzelatik ateratzeko momentuan emanen zituen elkarrizketak negoziatzen ziharduen ERC. Ez dirudi askoren buruan zegoenik urtebete geroago erbestean eta kartzelan jarraituko zutenik. Errealitate gordinak uste horiek deuseztatu eta ziklo errepresibo luze batera begira jarri du Kataluniako gizartea. Bukatu dira independentzia erraz eta merke lor zitekeela defendatzen zuten diskurtsoak.

GALDUTAKO BATASUNA

2018ko urtarrilaren 30an jaso genuen politikoki urteak emanen zuen uzta eskasaren lehendabiziko lagina. Egun hartan, Estatuko polizia eta guardia zibilek Piriñoetako mugak zaintzen zituzten bitartean, Kataluniako Parlamentuaren osoko bilkuraren gai-zerrendak puntu bakarra zeukan: Carles Puigdemont presidente-gaiaren inbestidura saioa. Baina oraindik



Rajoy buru zeukan Espainiako Gobernuak alde aurretik aurkeztu zuen helegitea Auzitegi Konstituzionalean, eta epaileek Parlamentuko Mahaia ohartarazi zuten ezohiko abisu batekin: inbestidura baimenduz gero, desobedientzia delitu bat eginen lukete. Puigdemont ez zen Bartzelonan agertu, eta Junts per Catalunya eta CUPen iritziaren kontra, Parlamentuko presidenteak, Roger Torren-tek (ERCkoa), osoko bilkura bertan behera utzi zuen.

Parlamentuko gehiengo demokratiko-ak aukeratutako hautagaiari betoa jartzeari –preso dagoen Jordi Sanchezekin berdina gertatu zen– ongi atera zitzaion Estatuari, independentismoaren barnean liskarrak piztu baitzituen. Orduz geroztik, etengabe errepikatu da eszena: JxCat-en desobedientziaren aldeko erretorika, ERCren posibilismoaren aurrean. Bitartean, CUP Parlamentuan galduta, blokeatutako instituzio batean zer egiten duen bere buruari galdetuz.

Ez da erreza bi familia independentista nagusien arteko borroka diseinatzeari, argudio arrazionalak emotiboekin nahasten baitira, hala nola iritzi politiko sendoak interes alderdikoiekin. Baina muinean, liskar pertsonalak eta beldur errepresiboak alde batera utzita, bada in-

dependentismoa banatzen duen galdera funtsezko bat, edozein estrategia amankomun baldintzatzen duena: independentismoak babes nahikoa al dauka Kataluniako Errepublika gauzatzeko? JxCatek –eta ANCK– baietz dio. ERCK –eta neurri batean Omnium Culturelek–, ezetz. Erantzun amankomun bat lortu ezean, zaila izanen da independentismoak bide orri bateratu bat berreraikitze-ko gaitasuna edukitzea.

UNIONISMOAREN BIRPITZEA

2017ko abenduaren 21eko hauteskundeak independentismoak irabazi zituen arren –oso momentu zailean gainera–, Parlamentu berriko indar nagusia unionista da. Eta ez edozein, gainera: Ciudadanos. Ines Arrimadas buru, alderdi laranja osoko bilkurak oztopatu eta dialektika desterratu du. Aurreko urteetan bai independentismoak bai unionismoaren zati batek diskurtsiboki emandako maila altuaren arrastorik ez da antzeman aurten Parlamentuan.

Unionismoaren berpizte hori ez da soilik Katalunian eman, Espainiako eskuinaren oldartzearen eskutik ere iritsi baita, Andaluziako hauteskundeek erakutsi berri duten bezala. Eta horrekin batera, ka-leak nagusiki independentista izaten ja-

rraitzen duen arren –Diadan argi geratu zen, baita aurreko asteko abenduaren 21ean ere, Pedro Sanchezek Ministro Kontseilua Bartzelonara eraman zuenean–, independentismoak agenda markatu eta iniziatiba eramateko gaitasuna galdu du urte honetan.

ZER ESPERO DEZAKEGU 2019AN?

Buruzagi independentisten aurkako epaiketak baldintzatuko du, beste ezeren gainetik, datorren urtea Katalunian. Data zehatzik ez duen arren, urtarrilean has-tea espero da. Ez dago hain garbi, ordea, sententziaren berri noiz izango dugun, maiatzeko hauteskunde bikoitzak baino lehen edo ostean. Hori bai, sententziaren edukiaren inguruan duda gutxi: inork ez du espero kondena gogorrik ez dakarren epaia Auzitegi Gorenaren partetik.

Horrela gauzak, balantza alde batera edo bestera epaiketari bai inputatuek bai kalean jendeak emandako erantzunak dekantatuko du: edo akusatzailea akusatu bihurtu, iniziatiba berreskuratu eta prozesua martxan jartzen da berriro edo beste fase oso desberdin bat irekitzen da behin betiko. Erreakzio horren arabera jakinen dugu, funtsean, aurtengoa urte galdu bat izan den edo, besterik gabe, ete-naldi saihestezin bat.





Bob EDME | FOKU

IKUSMIRA

ARNAGAKO ADIERAZPENA

Maiatzaren 4an, ETAREN amaiera ziurtatu zuen adierazpena jakinarazi zutenean, Kanboko Arnaga etxeak nazioarteko hainbat pertsona ospetsu, euskal gizarteko esparru guztietako ordezkariak eta 300 kazetari baino gehiago hartu zituen bere baitan. Euskal gizarte zibilak bultzatu zuen erakunde armatuaren amaiera, 2011ko urrian Aieteko Bake Konferentziak hasiera eman eta berehala ETAK berak iragarria. Bi lehendakariaren falta nabaria gorabehera, han izan ziren, besteak beste, Gerry Adams, Cuauthemoc Cardenas, Brian Currin, Raymond Kendall eta Alberto Spektorowski Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kideak, baita Jonathan Powell ere, hala nola Euskal Herriko indar politiko eta sindikal gehienetako ordezkariak. Eta haiekin batera, hirugarren lehendakaria, Jean-Rene Etchegaray. «ETA eta espainiar gobernuaren arteko elkarriketa aholkatu genuen eta hau ez da eman. Baina, halere, eman dira bakearen aldeko eginahal asko eta asko», zioen adierazpenak. Xabier Izaga



Beren senideak ikusteko milaka kilometro egin behar dituzten umeek protagonismo berezia izan duten urte honetan, askatasuna berreskuratu zuen Sara Majarenas euskal preso politikoak, ezarri zioten zigorra osorik bete ondoren eta bortizkeria matxistaren biktima izan zen bere alaba Izarrekin egoteko hainbat traba gainditu ondoren. Gorka RUBIO | FOKU



"La Manada" taldeko bortxatzaileen aurkako epaiak sutu egin zuen euskal gizartea, bortxaketari «abusua» esateagatik. Ekainean, Nafarroako Auzitegiak behin-behineko askatasuna eman zien bortxatzaileei, haien defentsaren helegiteak ebartzi arte. Euskal Herriko kaleak jendearen haserrearen eta salaketaren lekuko izan ziren. Marisol RAMIREZ | FOKU



1998ko uztailaren 15ean 200 polizia espainiarrek "Egin" egunkaria eta Egin Irratia itxi zituzten, Baltasar Garzon epaileak aginduta. Espetxe zigor gogorrek bete zituzten egunkariko zenbait ordezkariak, lanik gabe geratu ziren hainbat langile, aho-tsik gabe milaka herritar. Aurtengo ekainean, hogeitau urte igarota, Hernanin elkartu ziren auzipetuak. Jon URBE | FOKU



Ekainaren 10ean, euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzeke duten eskubidea ozen eta koloretsu aldarrikatu zuten 175.000 lagun baino gehiagok, Gure Esku Dago plataformak deitu zuen giza katean Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuz. 2014an Durango eta Iruñea lotu zituen kateari milaka maila gehiago erantsi zizkieten. Jaizki FONTANEDA | FOKU



Azaroaren 24tik abenduaren 3ra hizkuntza ohiturak aldatzeko Euskaraldia ekimenean parte hartu zuten milaka euskal herritarrek. Aurreikuspenak gainditu zituen jendearen erantzunak, ahobizi eta ahoprest gisa, lehen hitza euskaraz eginez, eta, ulertzeko gai zen ororekin, hurrengo guztiak ere bai. Euskaraldia hasiera baino ez zen izan. Aritz LOIOLA | FOKU

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

1958-2018, ETAren ibilbidea amaitu da

Ez dago zalantza askorik. Euskal Herriko ibilbide politikoari dagokionez, aurtengo albiste garrantzitsuena ETAren desagitea izan da. Ez litzateke, gainera, soilik aurtengo albiste esanguratsuena, herri honen azken hamarkadotako epealdia kontuan hartuta gertakizun historikoa ere izan baita, historiako liburuetan agertzen den horietarikoa. Bata bestearen barruan dauden bi ziklo itxi dituen gertaera izan da ETAk desagiteko hartutako erabakia, egindako iragarpena. Lehena, esan bezala, 60 urteko ibilbidearena. Bigarrena, ezker abertzaleak estrategia aldatetaren beharra hausnartu zuenetik egindakoa.

Interpretazio ezberdinak egon dira, jakina; eta izan da maila horretako gertaera historiko bati eskas eta arinkieriaz erantzun dionik. Sinplekeriaz betetako bi mezu: ez da ga-

tazka politikorik egon –beraz, gaizkile talde bat baino ez da izan ETA– eta garaituak eta garaileak egon behar dute benetako amaiera egoteko.

ETAk ere bere irakurketa zabaldu du. Horretarako, alde batetik, eztabaida prozesuaren emaitza aurkezteko hiru sekuentzia lotu zituen: Aberri Egunean, bere kideei omenaldia egin zien; apirilaren 20an eragindako kalteari buruzko adierazpena zabaldu zuen –agiriak apirilaren 8ko data zuen, urtebete lehenago izandako armagabetzea gogoratze-ko asmoz-edo–; eta maiatzaren 3an desagiteko adierazpena zuzendu zion Euskal Herriari eta nazioarteko komunitateari. Josu Urrutikoetxea eta Marixol Iparragirre kide historikoen ahotsekin grabazio bat helarazi zuen hedabideetara, eta Henri Dunant Zentroaren egoitzan ere agiriaren eta erabakiaren berri eman zuten konponbide prozesuan lagun



Arnagan hainbat euskal eragile eta nazioarteko zenbait pertsona ospetsu elkartu ziren erabakiari ongietorria emateko.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

izan diren nazioarte-ko eragileek.

Horrekin batera, data horien bueltan, ETak bere argudioak Euskal Herrian zabaltzeko beste bide batzuk erabili zituen. Adibidez, komunikazio bat helarazi zien hainbat euskal eragile politiko eta soziali. “Zutabe” agerkariaren azken zenbakia ere argitaratu zuen, eta, bertan, besteak beste, eztabaidaren Ondorio Txostena eta ibilbide armatuaren balantzea eskaini zituen. Galdera zaparradari

erantzunez, GARako zuzendari Iñaki Sotori elkarrizketa eman zion ETak. Euskaraz egin zen elkarrizketa eta liburu batean argitaratu zen erabakia ezagutu eta aste gutxira. Seguru asko, datoren urtean gaztelerazko bertsioa izango da eskuragai.

Horiek denak irakurrita, erabakiaren protagonista nagusiak 60 urteko zikloari buruz ez zuela ñabardurarik gabeko irakurketa egin esan daiteke. Ez da dena ala ez ezer. Aipatutako idazki eta agerraldi horietan modu ezberdinetan adierazi du ideia bera; adibidez, GARarekin eginiko elkarrizketan: «Bideak segitzen du. Euskal Estatuaren sorrera ortzimuga duen prozesuak aurrera segitzen du. [...] ETak aurreikusten zituen erdibideko helburuak (modu ulergarrian esateko, nazio onarpena eta autodeterminazio eskubidea) ez dira oraindik eskuratu, baina horiek lortzeko sortutako aukerak izan badira. Ikuspuntu historiko batetik, ETak bere ibilbidea hasi aurretik zegoen egoera eta zikloa itxi duenean dagoen egoera alderatuz gero, honako ondorio hau atera daiteke: hiltzera kondenatuta zegoen herri bat zegoela orduan eta bere buruaren jabe izan nahi duen herri bat dagoela orain, fase politiko bakoitzaren helburu politiko zehatzak gorabehera».

Aipatu bezala, erabakia bigarren ziklo bati ere badago lotuta, hain zuzen ere, estrategia politiko-militarretik estrategia politiko hutsera igarotzeko betetakoa. 2009an hasitako hausnarketak “Zutik Euskal Herria” ebazpena ekarri zuen 2010ean, eta haren ondotik 2011n zentzu argi batean norabidetu zuen bere jarduna ETak, jarraian borroka armatua utziz, armagabetzea gauzatuz eta bere ziklo zein funtzio historikoari buruzko eztabaida azken bururai-



ETaren desagertzearen biharamunean Gasteizen agertutako pintada. Jaizki FONTANEDA | FOKU

no eramanez. Hemen ere ez dago egia absoluturik. Izan ere, aipaturiko Ondorio Txostenak dioenez, «ETaren zikloa erabat ixtea beharrezkoa da. Beharrezkoa baina ez, bere horretan soilik, nahikoa. ETaren amaierak ez baitu, berez, halako herri suspertze bat ekarriko. Alta, prozesuan aurrerabideak lortzeko eta egoera berriak sortzeko ezinbesteko osagaia da gure erabakia. Uzta epe luzeagoan jasoko dugu».

Dela prozesu luze baten ondorioz egin zelako (barne eztabaidarako denbora hartu zuen ETak), dela erabakia emateko moduagatik (agiriak ez zuen zalantzarik uzten, nazioarteko eragileen babesa izan zuen, eta, esan bezala, ETak berak argibide asmo eman zituen), amaiera eztabaidaezina izan zen, nahiz eta Guar-

Badirudi egiazki pasa den baino askoz ere denbora gehiago pasa dela ETak bere amaiera iragarri zuenetik, are gehiago gertaera politikoak bata bestearen ondotik datozenean, etenik gabe

dia Zibiletik eta biktimen elkarte batzuetatik hasi diren esaten ETak baduela nolabaiteko jarraipenik. Betiko lepotik burua. Amaiera ganoraz egin zen, ordea, eta horregatik, beharbada, badirudi egiazki pasa den baino askoz ere denbora gehiago pasa dela ETak bere amaiera iragarri zuenetik, are gehiago gertaera politikoak bata bestearen ondotik datozenean, etenik gabe. •

«Urte gorabeheratsua izan da; sortutako aurreikuspen baikorrak ez dira bete»

Hiru telefono daramatza gainean. Batetik ez bada bestetik, mezuak eta deiak etengabeak dira. Bisitak, kezkak, zalantzak, izapide aldrebesak... Etxerat elkartean eskaintzen duten laguntzak askotariko aurpegiak ditu. Bukatzera doan urtea ez da ona izan; espero zenaren eta benetan izan denaren artean zuloa izan da, zulo iluna. Hortik behera abaildu da hainbaten itxaropena. Etxeraten garbi duten aurreikuspen bakarra 2019 lanean segitzeko urtea izango dela da.

Nola izaten da urte bukaera Etxeraten bueltan?

Urte bukaera beti izaten da mugitua eta berezia. Gabonen bueltan sentimenduak puri-purian egoten dira. Aldaketarik ez dugu

URTZI ERRAZKIN

ETXERAT ELKARTEKO BOZERAMAILEA

Hutsuneak mingarriago egiten diren egunak dira. Etxeraten, lana, lana eta datorren urtean lanean segitu beharko duten ziurtasuna dira Gabonetako menua.

Amagoia Mujika Telleria

ikusten, urtarrileko manifestazioa gainean daukagu, prestaketa lanetan gabiltza... Egun gogorrrak izaten dira.

Bisiten eta bestelako izapideen kudeaketa ez ezik, emozioena ere hor dago.

Bai. Gure laguntza ez da bakarrik bisitetan laguntzea edo arazoren bat dagoenean konponetzen saiatzea. Gure laguntzaren parte handi bat izaten da entzutea, enpatizatzea. Etxeraten lagunen eta senideen familia handi bat gara eta gure artean laguntzen ez bagara...

2018. urtea nolakoa izan da?

Oso gorabeheratsua izan dela esango nuke. Hainbat albiste baikor entzun izan ditugu, urtarritatik bertatik hasita. Urtarrilean esan zuen Gobernu frantsesak espetxe politika aldatuko zuela eta hurbilketekin hasiko zela. Egia da aurtan 26 hurbilketak gauzatu direla eta 22 DPS estatutua –Frantzian aplikatzen den bereziki zainduriko preso estatutua– kendu dituztela. Gradu aldaketa horrek presoaren baldintzak hobetu egiten ditu. Baina urte bukaerara iritsi gara eta berriz egoera blokeatuta dago. Ez gara iritsi urte hasieran jarritako aurreikuspenetara.

Gobernu espainolari dagokionez, antzeko zerbait gertatu da. Uztailean gobernu aldaketa gertatu zen eta Pedro Sanchezek adierazpen gozoak egin zituen gure belarrientzat. Baina esan zuenetik ez da ezer betetzen ari. Horregatik, urte gorabeheratsua izan da eta, tamalez, aurreikuspen baikor



Jon URBE | FOKU

262

horiek ez dira bete. Horrek bir-biktimizatu egiten zaitu. Itxaropena sortzen da eta, gero, hutsean geratzen da.

Egia da, era berean, Euskal Herri mailan hainbat aldaketa baikor ikusi ditugula eta horiei balioa eman behar zaiela. Sindikatuen eta alderdi politikoen artean gero eta babes handiagoa dauka euskal preso-en auziak. Garbi ikusten dugu gizarteak zeresan handia daukala horretan. Guk beti izan dugu konfiantza euskal gizartearengan eta euskal gizarteak garbi ikusi du benetako konponbide bat nahi badugu eta elkarbizitza aurrera eramane nahi badugu, preso-en gaiari ere heldu egin behar zaiola.

Asko aipatzen dira gradu aldaketak. Zer dakarte?

Nik bi gauza nabarmenduko nituzke. Batetik, presoari espetxe barruko bizitzan zertan eragiten dion. Lehen graduan zaudenean, egunean 20-21 ordu zure ziega barruan bakarrik ematen dituzu. Bi eta lau ordu tartean atera zaitezke patiora, baina jende gutxiarekin egon zaitezke. Eta ez duzu aukerarik espetxe barruko ekintza desberdinetan parte hartzeko. Bigarren gradura pasaz gero, beste kideekin denbora gehiago pasatu dezakezu eta, gainera, espetxe barruko ekintzetan parte hartu dezakezu. Kontrola ere malgutu egiten da eta presioa asko jaisten da. Psikologikoki sekulako aldea dakekar lehen gradutik bigarrenera pasatzeak.

Bigarrenik, espetxe politika-ren baitan lehen gradua egoe-ra berezia da eta arriskutsuak diren presoek bakarrik aplika dakieke; arriskutsuak bere bu-ruarentzat, beste presoentzat

edota espetxearentzat. Sailka-pen hori ez da ematen kanpo-an egin duen delituaren arabe-ra, espetxe barruko egoeraren arabera baizik. Denok dakigu euskal preso politikoak arazo gutxien ematen dituztenak di-rela. Hori, gainera, objektiboki neurtu daitekeen zerbait da. Hala ere, gure senideei siste-matikoki lehen gradua aplika-tzen zaie.

Bigarren graduan zaudene-an, espetxe onurak egon dai-tezke; kalera ateratzeko bai-menak, birgizarteratzeari begirako pausoak, espetxeal-dia gutxitzeko aukerak... Le-hen graduak, baina, bide ho-riek denak itxi egiten dizkizu. Lehen graduak ez dizu uzten legeak aurreikusten duen ibil-bide hori egiten. Ondorioz, zu-re zigorra luzatu egiten da eta, gainera, baldintza oso gogo-rretan ematen da.

Batzuen arabera, euskal preso-ek orain artean ez dute eskatu gradu aldaketa.

Hori ez da egia. Tranpa da. Pre-soak ez du eskatzen gradu alda-keta. Hori espetxeak berak era-bakitzen du; hiru edo sei hilabetero berrikusten duen egoera bat da eta Espetxe Zain-tzak erabakitzen du gradu alda-keta eman edo ez. Gero, presoak errekurso bat jar dakioke eraba-ki horri, baina ez da presoak era-bakitzen duen zerbait. Hori ere erabili izan da tranpa modura.

Datua oso esanguratsua da: Espainian preso-en %5 baino gutxiago daude lehen gra-duan. Euskal preso politikoen kasuan, %94.

Diskurtsoak aldatu dira, baina errealitatea, gutxixeago.

Bai, horrela da. Pedro Sanchez sartu zenetik hainbat gauza al-

Uneotan 262 preso politiko daude:

4, Euskal Herrian;
211, Estatu espainoleko
40 espetxetan; eta
46 preso, Estatu frantseseko 11 espetxetan. Beste preso politiko bat Portugalen dago. Horrez gain, larri gaixo dauden bi preso espetxealdi arinduan daude eta beste bat epailearen kontrolpean. Hiru horiek aintzat hartuta, 265 preso politiko daude egun.

datu dira diskurtsiboki, baina gure eguneroko lanean, zori-txarrez, giza eskubideen urra-ketak salatzen jarraitu behar dugu. Horiek ez dira batere aldatu; motxiladun umeak, adi-neko senideak, gaixotasun la-riak dituzten presoak... Kontua ez da ez dituztela aska-tzen, baizik eta ez dituztela gerturatu ere egiten. Eta esan zuten gerturatzen lehenak be-raiek izango zirela. Hori ere ez dute bete.

Kostatu egiten zait berdin gaudela esatea, guretzako pa-satzen den egun bakoitzean egoera okertu egiten delako; ekonomikoki, fisikoki, psikolo-gikoki... galerak gero eta han-diagoak dira. Dispersioko egun bakoitzeko egoera okertu egiten da, bai presoarentzat eta baita senide eta lagunen-

tzat ere. Astero daude bidaiak, arriskuak hartu behar ditugu, istripuak daude –aurten, sei is-tripu–... Etengabeko sufrimen-du jarioa da. Gaur egun, Eus-kal Herrian dispersioaren 4.000 biktima potentzial dau-de oraindik.

Azken asteotan Estatu espaino-lean izan diren mugimenduak nola ikusten dituzue?

Guk lekualdaketak direla esaten dugu, ez hurbilketak. Gainera, kasu honetan ministroak berak horrelaxe aipatu zituen, ohiko lekualdatzeak zirela esan zuen. Esaten da familia bizitzaren al-de eta presoak birgizarteratzea-ren alde egiten direla. Orduan, ezin dugu ulertu zergatik man-tentzen dituzten 200-300 kilo-metrora, Zaballako espetxean lekua dagoenean. Presoak Zaba-llara aldatzeko eskatu du eta be-re eskubidea da egon nahi duen espetxea aukeratzea, beste edo-zein presok bezala. Gure senide-ei eskubide hori ukatu egiten zaie.

Espainiako erregearen suhiak espetxea aukeratu ahal izan duen bezala.

Adibidez. Hain ohituta gaude gure kasuak ikusten, preso ba-tek espetxea aukeratu duela en-tzuten dugunean pribilegiatua dela pentsatzen dugula. Ez, bera ez da pribilegiatua, eskubide ba-tzuk ditu eta bermatu egiten zaizkio. Gertatzen dena da gure senideen eskubideak zapalduak izaten direla etengabe; eskatzen dugun bakarra da eskubide ho-riek errespetatzea eta betearaz-tea. Eskubideak denetak dira eta ez daude kontrapartidetara lotuta. Ezin dira baldintzak es-katu eskubide bat onartua iza-tea. Eskubideak bere horretan onartu behar dira.

2018

{ koaderno } Amagoia Mujika Telleria

Zeozero mugitu da, baina, berriz min hau



Martxoaren 8an Bilbon hartutako irudia. Aurtengo Emakumearen Eguna mugarri garrantzitsua izan da. Luis JAUREGIALTZO | FOKU

Bai, zeozero mugitu da aurtan. «*Hay que ser feminina y no feminista*» esaten ziguten umetan. Eta horrelaxe hazi ginen batzuk, «feminista» izate horrek karga handia behar zuela pentsatuta; itsusiak eta inork ez maitatzeko modukoak begitantzen genituelako. Nerabezaroan tristatu egiten ginen taberna jendetsuetan «gure mutilek» ez bagintuzten defendatzen. «Horrek ipurdia ukitu dit», kexatzen ginen mutilei. «Eta? Ez al dakizu zuk bakarrik defendatzen?», haien erantzuna. Eta gu lur jota, uste genuena baino gutxiago maite gintuztelako. Izan ere, filmetan mutilak beti-beti defendatzen zuen bere neska mutur joka. Horrela neurtzen zen maitasuna, zenbat eta borroka latzagoa «bere neskaren» ipurdia «berea» bakarrik zela garbi uzteko, orduan eta maitasun sakonagoa.

Zenbat kostatu zaigun hori guztia hausten, puskatzen, erantzten. Eskerrak bidean lagun onak topatu ditugun, emakume indartsuak, ahaltzuak, ausartak, ahulak, lotsagabeak, umore onekoak, txarrekoak... Horiei esker sinistu dugu baietz, balio dugula, inork gure ipurdia defendatzeko borrokarik egiten ez duenean ere. Besteek ere erakutsi digute. Ipurdia ukitu digutenak, titietara begiratu digutenak, begi gosetiekin irentsi gaituztenak, atzetik segika beldurtu gaituztenak. Txarretik eta onetik, denetik ikasten da bizitza honetan, tamalez.

Gu, gutxi edo gehiago, aspaldi konturatuak ginen feminismoak salbatuko gaituela. Hainbeste hamarkadetan sokatik tiraka-tiraka ari diren horiek –haurrak ginela itsusiak eta inork ez maitatzeko modukoak begitantzen genituenak– aterako gaituztela lokatzetatik.

Eta soka horretan lotu gara, aurrerago edo atzerago, feminismoaren soka zintzilikatu gara gure burua salbatzeko.

Baina, bai, zeozer aldatu da aurten. Esku askok eutsi dute soka hori, indarrez. Feminismoa liburuetakoa kontua zela uste zuten, hitzaldi korapilatsuetako gaia. Ez zuten uste beraiek janzteko modukoa zenik, handitxo geratuko ote zitzairen beldur ziren akaso... Martxoaren 8an mezua garbia eta zuzena izan zen: «Emakumeak geratzen bagara, mundua geratzen da». Eta mundua geratu zen, une ñimiño batez sikiera. Eta une horretantxe konturatu zen emakume asko hankak lokatzetan trabatuta zituela eta horregatik ezin zuela aurrera egin, horregatik sentitzen zuela itolarri hori.

Zaintzaren karga bizkarrean duen belaunaldi horri buruz ari naiz. Se-me-alabak eta senarrak zaintzetik –eta nola zaindu gainera– gurasoak zaintzera pasatu direnei buruz. Hori, kasu onenean; inguruan zaindua izatea behar duen izeba-osa-ba, lehengusu, bizilagun edota ezagunen bat baldin bada, hori ere haiei egokituko zaielako. Ingurukoak zainduak izateko programatutako emakume horiei buruz ari naiz, beren burua zaintzea inoiz okurritu ez zaien horiei buruz. Bai, horietako asko eta asko ikusi genituen Martxoaren 8an planto egiten, pozik, indartsu, irribarrez. Bazekiten etxera bueltan ezer gutxi aldatuko zela, zaintzen segitu beharko zutela. Baina beraiek aldatu dira, tokiz mugitu dira eta ez dira lehengo puntura bueltatuko. Hori aldaketa handia da.

Behera begira, feminismo betean jaio direnak daude. Inbidiaz begiratzen diet batzuetan, garbi dutelako zer nahi duten eta zer ez, zer gustatzen zaien eta zer ez. Iruditzen zait bizitzaren plazerez eta beren gorputzez gozatzeko aukera gehiago dituztela. Barre lasaia-ego egiten dutela, akatsak ere libre egiten dituztela, beren bu-ruari askatasun txuteak aiseago ematen dizkietela.

Aldi berean, pena ere ematen didate. Itxuraz askeagoak izanagatik, gu bezain lotuak ikusten ditudalako maitasun erromantikoa esaten zaion munstro horretara. Alegia, oraindik mutilen batek beren ipurdia mutur joka defenda

dezala desio dutela iruditzen zait maiz. Eta ez da arraroa, filmek hori kontatzen eta goratzen segitzen dutelako oraindik, gure garaian bezalaxe. Gezurretako parekideta-sunean haziak izateak bere kargak ditu. Tristeia eta nekagarria den arren, ezin da alerta-egoera itzali.

Martxoaren 8an mundua geratu zen, une ñimiño batez sikiera. Une horretantxe konturatu zen emakume asko hankak lokatzetan trabatuta zituela eta horregatik sentitzen zuela itolarri hori

Baina, bai, zeozer aldatu da 2018. urtean. Matxismoak ere zorrotzu ditu letaginak. Erasota sentitzen den piztia nola. Eskuin muturreko alderdiek darabilten «genero ideologiaren» kontrako bandera ezin bistatik galdu. Homosexualitatearen kontra, abortu eskubidearen kontra, indarkeria matxistaren kontrako legearen kontra... Matxismoak oso bizirik dirau, ilea gominaz alde batera orraztuta batzuetan eta modu disimulatuagoan besteetan.

Zeozer mugitu da eta akaso badira pozik egoteko arrazoiak. Baina ezin pozik egon, matxismoak hiltzen, jipoi-tzen, bortxatzen, umiliatzen eta zapaltzen segitu duelako 2018. urtean ere. Berriz min hau. •



Matxismoak hil egiten du. Irudian, Maguette Mbeugouren hilotza eramaten, Bilbon.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

2018



Eider Rodriguez idazle orerettarraren «Bihotz handiegia» ipuin bilduma eta «Santa Familia» komikia -marrazkiak Julien Ribasenak dira- saritu dituzte aurten. Juan Carlos RUIZ | FOKU

 IKUSMIRA

BI EUSKADI SARI EIDER RODRIGUEZENTZAT

Eider Rodriguez idazlearentzat 2018. urtea berezi joan da, bi Euskadi sari jaso baititu. Horrelako egoera bat ematen den lehen aldia izan da, gainera. Alegia, aurretik ez da izan urte berean bi Euskadi sari jaso dituen idazlerik.

Euskarazko Literatura saria, “Bihotz handiegia” (Susa) ipuin bildumagatik jaso du. Lan horrek aurretik beste sari bat lortua zuen, Liburuaren Egunean Gipuzkoako Liburu Denden Elkartek ematen duen Zilarrezko Euskadi saria ere eskuratu baitzuen. Bigarrenik, Haur eta Gazte Literaturako saria ere eman diote, “Santa Familia” (Ikastolen Elkartea) komikiagatik. Marrazkiak Julien Ribasenak dira.

Pozik jaso zituen bi sariak Rodriguezek, «harrituta eta arraro» sentitzen zela aitortu arren. Ipuin-bilduma bat eta komiki bat saritu izana genero horien mesedetan izango dela espero du idazle orerettarrak. Urte biribila, beraz, Eider Rodriguezentzat.



Orain artean emakumezkoen traineru estropadetan egon den talderik onena da San Juango Batelarena. Bost Kontxako bandera eta bost Euskotren liga bereganatu dituzten arraunlariak badoazela esan dute 2018. urte amaiera honetan. Aro baten bukaera da zalantzarik gabe; kirol emaitzen distiraren argia eta agur triste baten itzala. Juan Carlos RUIZ | FOKU



Onintza Enbeita Maguregik jantzi du aurten Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapela. Hartara, ibilbide luzeko bertsolari muxikarra izan da Bizkaiko txapela jantzi duen lehen emakumea. Bizitza erdia baino gehiago darama plazetan eta aurten-goia zazpigarren finala izan du. Bide oparo baten eta final on baten emaitza da lortutakoa. Aritz LOIOLA | FOKU



Hogeigarrenez Hondarribiko kaleak zeharkatu ditu alarde parekideak, aurten, 2018. urte honetan. Eta berriz plastiko beltzek eta ertzainek hautsi dute normaltasuna behar zuena. Normaltasunik, baina, artean ez du ezagutzen alarde parekideak. Irudikatu dezake, baina ezagutu ez. Tentsio handiko alardea izan da, baina txaloak ere ozenak izan dira. Akaso, garai berri baten atariko gerta daiteke hogeigarrena. Juan Carlos RUIZ | FOKU



Celes Alvarez hil da. Bere seme Jose Miguel Etxeberria *Naparra* bilatzen eman ditu azken 38 urteak, 1980ko ekainaren 11n Ziburutik eraman zutenetik. Bilaketa hori izan da bere bizitzaren ardatzetako bat eta semea topatu gabe joan da azkenean. Idoia ZABALETA | FOKU



"Handia" filma izan da 2018ko Goya sarietan protagonista. Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendutako proiektua hamahiru ataletan zegoen izendatuta eta hamar garaikur eraman zituen. Goyen historian sari gehien jaso dituen hirugarren filma da. Jon URBE | FOKU

{ analisisa } Aitor AGIRREZABAL

Zalantzei, itxaropenarekin

Urte zaila, Altsasun amaitzear dagoena. Epaike-ta, zigorrak, sare-kada, errekurtsioa edo errekusazioa izan dira, alde batetik, herriko zortzi gazteren aurkako auzian 2018. urtea markatu duten hitzak. Bestetik, Zaballara gertur-tzea, elkartasuna eta Iruñean inoiz ikusi diren mobilizaziorik handienak. Atsedean gutxiarekin ekingo diote urte berriari, urta-rrilaren 14tik 16ra bitarte Apela-zio Aretoak auzia berrikusiko du-eta.

Hilabetetan zain egon ostean, apirilean eseri ziren espainiar Entzutegi Nazionalean Oihan Arnanz, Jokin Unamuno, Adur Ramirez de Alda, Ainara Urkijo, Aratz Urrizola, Iñaki Abad, Julen Goikoetxea eta Jon Ander Cob. Aurkeztutako lekuko eta probak ukatzeak markatu zituen aurre-ko hilabeteak, baita akusatuei «terrorismoa» leporatzeak ere, hori izan baitzen auzia Iruñetik Madrilera eramateko argudio nagusia. «Esperantza gutxiarekin joan ginen. Entzutegi Nazionala zer den badakigu. Terrorismoa-gatik zigortzea eskatzen zuen akusazioak eta hori, behintzat, erori egin zen», gogoratzen du Ramirez de Aldak “Altsasu. El caso Alsasua” liburuan jasotako el-karrizketa batean. «Orain, erre-kurtsoekin, itxaropen hori berreskuratu egin dugu».

Albiste onen bat ere izan dute denbora honetan zehar. Azkena eta argiena, Madrileko espetxe ezberdinetan urrunduta eta sa-kabanatuta egotetik, Zaballan,

Altsasutik ordu erdira, eta elka-rrekin egotera igaro dira gazte-ak udazkenean. Horrek senide-en egunerokotasunean eragin zuzena izan du eta zazpiak elka-rrekin egoteak ere espetxe ba-rruko egoera samurtu egin du. Baldintzak ere, Aranjuez, Estre-mera edo Soto del Realen zituz-tenak baino nabarmen eroso-a-goak dira Arabako espetxean.

Hori bai, kolpe gogorrak ez di-tuzte falta izan amaitzear den 2018. urtean Altsasuko zortzi gazteek. Hasteko, 13 eta 2 urte arteko espetxe zigorrak ezarri zitzaizkien zortzi sakandarrei eta horren ondotik iritsi zen Abad, Goikoetxea, Cob eta Urri-zolaren aurkako sarekada eta es-petxeratzea. Eta kolpe berri ba-tekin amaituko dute urtea.

Tartean, baina, egon dira isto-rioaren beste aurpegia azalera-tzeko une ugari ere. Aspaldian elkartasun olatu handiena al-txarazi duen kasua izan da Al-tsasuko gazteena eta urte hone-tan zehar gorpuztu da hori.

Altsasu Gurasoak eta Altsasu-koak Aske plataformen lanaren ondotik, ekimenak, mobilizazio-ak eta keinuak etengabeak izan dira. Ez soilik Euskal Herrian, baita Estatuko hainbat tokitan ere, hitzaldietan parte hartzen eta gazteen kasua azaltzen izan dira plataformetako kideak. Ho-rrren emaitza apirilean eta ekai-nean Iruñean egindako bi mobi-lizazio erraldoietan geratu zen agerian: Nafarroako hiriburuan gutxitan edo inoiz ez ikusitako manifestazioak izan ziren. Al-

derdi politiko, sindikatu eta era-gileen jarrera hartze garbia bul-tzatu zuten mobilizaziook, Na-farroan bi bloke garbi utziz: batetik, Aldaketaren Gobernua bultzatzen dutenak, eta, beste-tik, UPN, PP eta PSN, erregime-na. Lerrokatze argi horretatik al-dendu diren bakarrak Altsasuko PSNko bi zinegotziak izan dira, zeintzuek, modu pertsonalean, herriaren inguruan eman den irudia arbuiatu eta gazteak zein haien familiak bizitzen ari dire-na «gehiegizkoa» dela defenda-tu duten publikoki. Hauteskun-de urtean sartuko gara, eta kanpainen ez da Altsasu faltako, alderdi eta hedabideen ikusmi-ran jarraitzen du-eta herriak.

ALTSASU, ALDERDIEN GUDA ZELAI

Eta lehia horia Nafarroako mugetatik haratago joan da. Alderdien posizionamenduak Altsasu guda zelai bihurtu du-eta. Gazteen afera oinarri eta kasuak justizian azaleratu di-tuen gabezia guztiak hizpide, giza eskubideen defentsan ikur bihurtu da Sakanako he-rria batzuentzako. Besteentza-ko, aldiz, espainiar ikurren, Guardia Zibila kasu, eta unio-nismoaren gotorleku. Azken hori azaroaren hasieran PP, Ciudadanos eta Voxek Altsa-sun bertan egin zuten ekital-dian laburbildu daiteke. Nafa-rrroan ordezkari-tza txikiena duen alderdia eta ordezkari-tzarik ez duten beste bi alder-diren ekitaldiak Estatu mailan oihartzun izugarria izan zuen. Albert Rivera buru izanik eta atzetik Santiago Abascal bera

Altsasu ikur eta guda zelai bihurtu da. Giza eskubideen aldarrikapenean, alde batetik, eta unionismoaren eta espainiar ikurren defentsan bestetik. Horren azken adibidea, Ciudadanos, PP eta Voxek Sakanako herrian egin zuten ekitaldia.

ere gehituta, galtzeko gutxi-
rekin aurkeztu zuten euren
burua Altsasun, zein baino
zein espainiar ikurren defen-
datzaile sutsuago. Nafarroan
jokoan gutxi duten alder-
diok, boto eskuindarren
lehia bizian ari dira Estatuan,
eta Altsasu agertoki horretan
baliatu nahi izan dute. He-
rriak, beste behin, arduraz
eta zorrotzasunez erantzun-
ten asmatu zuen eta ez zen
istilu larririk izan.

Bi urte igaro dira Koxka ta-
bernaren atariko gertakarieta-
tik eta, ordutik, «zalantzez
eraikitako bizia» bizi dutela
azpimarratzen du Abadek es-
petxetik. «Zure bizia eten egi-
ten da, zenituen asmo eta
proiektu guztiak eten egiten
dira», gaineratzen du Unamu-
nok. Epaiketaren berrikuspe-
nari begira, gazteengan zalan-
tza horiek hazi egin dira
epaitegiaren azken erabakia-
ren ondotik.

Auzia bi hilabetez egon da
geldirik udazkenean. Urriaren
hasieran, sei auzipeturen abo-
katuek auzia berrikusiko duen
epaimahaia osatzen duten
epaileak ezesteko eskaria egin
zuten, Enrique Lopez eta Jose
Ramon Navarrok Guardia Zibi-
laren dominak jasota dituzte-
lako eta Eloy Velascok Covite-
ren kongresu batean parte
hartu zuela argudiatuta. Bai-
na, epaileen jokabidea aztertu
ohi duen epaitegiak bertan be-
hera utzi zuen errekusazioa
abenduen hasieran, eta, ho-
rrez gain, «fede txarra» lepora-
tuta, 600 euroko isuna ezarri

zuen auzipetuotako bakoitzari.
Amaia Izkok, Unamuno eta Ur-
kijoren abokatuak, horrelako
zigorrak «guztiz ezohikoak»
direla azpimarratu zuen; era
berean, errekusazioa ordena-
mendu legalak eskaintzen
duen tresna bat dela gogoratu
nahi izan zuen egindako lehen
balorazioan.

Orain, urtarrilaren 14tik au-
rrera, frogak eta argudioak be-
rrikusi eta aztertze aukera
irekiko da, berriz ere, Entzute-
gi Nazionallean. Horrelakoetan
gertatu ohi denez, zalantza eta
beldurrei itxaropena ere gehi-
tu zaizkie Altsasun. «Ez dugu
horretan gehiegi pentsatu
nahi», onartu du Unamunok
espetxetik. Gazteak azterketa
garaian harrapatuko ditu be-

rrikuspenak eta hori ere ez da
mesede izanen ikasketa ga-
raian.

Urte berriari itxaropenare-
kin ekingo diote Altsasun. Ho-
ri bai, oinak lurrean, onartuta
prozesuak oraindik ere luze jo
dezakeela. Nekea sumatzen
hasia da herrian, eta, noski, zi-
gortutako gazteen gurasoen
artean ere, baina hainbeste
izateak ere lagundu egiten du.
Batzuetan batzuk dira gurditik
tira egiten dutenak, eta, beste
batzuetan, beste batzuk. Bel
Pozuetak, Adur Ramirez de Al-
daren amak, argi dauka ez du-
tela etsiko, borrokak luze jo
arren: «Hemen jarraituko du-
gu beharrezkoa den denbora
guztian. Justizia da nahi dugu-
na. Denak etxean izan arte».

Beheko irudian, ekainean
Iruñean izandako
manifestazio jendetsuan
jasotako unea. Altsasuko
gazteen alde inoizko
elkarretaratze
jendetsuenak egin
dira Iruñean.
Jon URBE | FOKU



«%0,25eko igoera txinparta izan zen. Sakoneko arrazoiak daude gure borrokan»

Eskubide sozialen aldeko Euskal Herriko pentsiodunen plataformetako bat da Arabako Pentsionistak Lanean elkarte eta, aldi berean, mugimendu zabalago baten parte. Haren bi ordezkariekin hitz egin dugu, Enrike Garbaio eta Armando Aulestiarte. Duela bi urte eztabaidatzen hasi ziren pentsio eskasen gainean, energia pobreziaz eta mendekotasunaz, baita zenbait mobilizazio ere. Aurten pentsiodunen mugimenduak erabateko protagonismoa izan du, eta, euren egoerak irtenbide duin bat izan ezean, hala jarraitzeko prest daude.

Urtarrilean piztu zen pentsiodunen matxinada eta urtea bukatzeaz itzaltzetik urrun dago.

Aulestiarte: Joan den urtarilaren 31n ustekabea hartu gintuen kalera atera zen jendetzak. Orduan hasi ziren asteleheneroko mobilizazioak. Hasieran desadostasunak izan ziren Estatuko beste talde batzuekin, baina berehala gurekin batera egitea erabaki zuten. Aurten hiruzpalau manifestazio erraldoi egin ditugu. Astelehenetan ere kopuruari eusten diogu, eta kontuan izan behar dugu herri askotan ere horrelako mugimenduak sortu direla. Araban, esate baterako, Agurainen, Laudion, Amurrian... eta beste hiru herrialdeetako herri askotan ere, berdin.

Maiatzean, PPK eta EAJk aurrekontuak negoziatu zituzten, eta pentsioak izan zuten gai nagusietako bat. Zuen mugimendua

ENRIKE GARBAIO ETA ARMANDO AULESTIARTE

ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN

Pentsiodunek protagonismo berezia izan dute aurten. Haien ordezkariok urtearen errepasoa egin dute. Kezkatzeko motiborik ez dute falta, baina pozik daude beren borrokak ez duelako hutsik egin.

Xabier Izaga Gonzalez

indargabetzeko arriskua sumatu zenuten?

Garbaio: Ez, proposamen hartan dena behin-behinekoa zen, eta egun ere ez dago ezer bermatuta. Aurten kontsumo prezioaren indizearen arabera igoera izan da, baina ez dago bermatuta ezta datorren urterako ere. Aurrekontuen negoziazioa hura keinu txikia izan zen, %0,25eko igoeraren aurka sortutako mugimendua apurtzeko egindakoa. Baina %0,25eko igoera txinparta izan zen, gure borrokan sakoneko arrazoiak daude-eta. Pentsiodun askoren egoera benetan larria da. Bi ardatz nagusi ditu gure borroka: batetik, pentsio publikoen sistema defendatzea, eta, bestetik, pentsio duinak denontzat, horregatik aldarrikatzen ditugu 1.080 euroak. Ez da inongo askak, baizik Europako Gutun Sozialetik datorrena.

A: Urte guztian pentsioen %1,6ko igoera baino ez da izan, beste guztia airean dago, dato-



rrer urteko kontsumo prezioaren indizea, Estatuko aurrekontuak, gutxieneko soldata 900 euroan jartzeko PSOeren eta Podemosen akordioa... Aurrekontuak onartuta ere, kontsumo prezioaren araberako igoera ez da bermatuta egongo, urtebeterako izango da eta. Guk nahi duguna da kontsumo prezioaren indizearen araberrako igoerari eustea, lege bitartez edo, aurrekontuen negoziazioen mende egon barik.

Zer behar du pentsio duinak?

A: Gure aldarrikapenak, labur-labur, hauexek dira: kontsumo prezioaren araberrako araberrako igoera; jasangarritasun faktorea bertan behera uztea; emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala desagertzea; 52 urtetik gorakorentzat langabezia prestazioa berreskuratzea; lan erreforma indargabetzea; 1.200 euroko gutxieneko soldata; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa; eta pentsio plan pribaturik ez.

EAEko aurrekontuen negoziazioan gai nagusia izan zarete...

A: EAJk dio pentsioak ez direla bere ardura, Madrilen kontua direla. Baina hor tranpa bat dago. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren bitartez igo daitezke pentsioak. Horrek oztopo bat dauka, banaka egin barik bizikidetzat unitateka egiten bada, ez dagoela igoerarik. Eta ez, pentsioak banaka nahi ditugu, bat izanda eta bi elkarrekin bizi izanda. Hori zen oztoporik handiena. Eta EAJk ez zuen gutxieneko soldatarekin lotu nahi.

G: Batzuek esan digute: «Nola da posible zuek 1.080 euro eskatzea gutxieneko soldata 700 izanda –edo datorren urtean 900, onartzen badute–?». Hala da, baina Europako Gutun Sozialari jarraituta, gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izango litzateke.



Argazkiak: GAUR8- Jaizki FONTANEDA | FOKU

Edonola ere, negoziazioak huts egin zuen.

G: EH Bilduk behin baino gehiagotan eraman ditu gure aldarrikapenak Parlamentura, adostasun batera iristeko epeak jartzea planteatuta, nahiz eta guk 1.080 euro eskatzen jarraitu. Baina EAJren progresibitatea zen orain 800 euro eta koska eta hiru urte barru 900 eurora iristea. Gainera, oinarrizko errentarekin lotuta dago. Patxi Lopezek Gobernuan egon zenean %7 murriztu zuen, eta gero kontsumo prezioen indizea %8 igo zen, eta, legez onartuta zegoen igoera automatikoa kendu zutenenez, %15eko galera egon da.

Elkarri leporatzen diote errua.

G: Gobernu batek aurrekontuak onartzea lortu behar du, ez beste-erri errua bota. Gainera, argi geratu da zer diru kopuru zen, 856 euro, guretzat eskasa, eta, hala eta guztiz ere, EAJk ez du onartu. Esan beharra dago PSE ere hor egon dela, eta Madrilgo saltsan ere sartuta dagoela; saltsa horretan Podemos ere badago, aurrekontuetan, eta hemen inork ez du txintik esan,

oso bitxia da. Podemos dio anti-sozialak direla aurrekontuak; bai, ados, baina hamabost proposamen egin dituzte eta, pentsioei buruz, ezer ez. Zergatik? Preso daudelako Madrilen. Azkenean, nahiz eta kritika zorrotzak jaso, EH Bildu izan da pentsioen alde egin duen bakarra, nahiz eta gus-tuko ez izan proposamena nola aurkeztu duen.

A: Gainera, hor dago gastu araua delakoa, Europatik datorrena, Espainiako Gobernuak eta EAJk ontzat jotzen dutena. Superabita dagoenean, hori ez da gastu sozialera bideratzen, zorra kentzera baizik. Gorpil zoroa da. EAJk ez du hor sartu nahi, zeren gero Estatuaren aurka egin behar da, gastu araua berrikusi. «Ezin dugu, zeren Estatua...» diote, baina eurak ere gustura dabilta politika neoliberal horrekin.

Kotizatu ez dutenek gehiago kobratu behar dutela diote...

G: Hori gezurra da. Gure lagun batzuk berrogeitaka urte ondo kotizatuta izanda, azken urteetan enplegu erregulazio bat izan zuten eta batez bestekoa jaitzita 1.000 euroekin geratu dira.

A: Lehen gehienon amek etxean behar egiten zuten. Eta zenbat jende jakin du beharrean hainbat urte eman ondoren horietatik asko kotizatu gabe zituela? Beste batzuek kotizatu egin dute, baina azken urteetan bota egin dituzte. Autonomoen artean denetarik dago, txoferra eta Amancio Ortega, baina askok ahal dutena kotizatzen dute, eta, gehiago kotizatzen badute, ez dute soldatarik.

Eta aurrera begira?

A: Pozik gaude, jendeak ez duela-ko atzera egiten. Urtarrilaren 7an jarraituko dugu. Maiatzean hauteskundeak dira, eta guk presio egiten jarraituko dugu.

«Bi ardatz nagusi ditu gure borroka honek: batetik, pentsio publikoen sistema defendatzea eta, bestetik, pentsio duinak denontzat, horregatik aldarrikatzen ditugu gutxieneko 1.080 euro horiek. Ez da inongo asmakizuna, baizik eta Europako Gutun Sozialetik datorrena»

Iñigo Cabacasen heriotzagatik epaiketa egin eta epaia ezagutu da, baina justizia heltzeke dago, urrun oraindik

A black and white photograph of a courtroom scene. Several judges in robes are seated at a long bench, facing an audience. The audience is seen from behind, seated in rows of chairs. The room has wood-paneled walls and flags are visible in the background.



kideak ez bezala Indautxuko herriko tabernaren kontra oldartzearen kontra agertu zen bakarrari. Egia da berak ardura bazuela, bertan zegoen polizia-agintari nagusia zelako eta ez zuelako ez erasotzeko agindurik eman –horixe leporatzen dio auzitegiak, eraso ez ekiditea–, baina paradoxikoa da bera zigortu eta pilotak jaurti zituztenak eta agindua eman zutenak errugabe jotzea.

Epaileen argudioa da ezin dela baieztatu hiru ertzainen pilotakadek Iñigo hil zutenik eta bi ofizialordeen aginduek heriotza eragin zutenik. Eta azkenean, bostak libre, nahiz eta epaiak nabarmentzen duen ertzainek egindakoak ez zuela «inolako justifikaziorik», «erabat lekuz kanpo» zegoela eta poliziek protokolo guztiak hautsi zituztela.

Epaiketaren lehendabiziko egunean, denek ofizialaren aurka egingo zutela egiaztatzeaz aparte –Ugarteko eta Aldekoak ere De Pablo seinalatu zuten–, beste gauza asko argi geratu ziren. Alde batetik, akusatuek traera berezia izango zutela. Izan ere, baimena eman zieten epai-
ketara ez joateko, lehen eta az-

ken egunak kenduta, eta joandakoan mozturrotuta egoteko aukera ere izan zuten. Gainera, nabarmen geratu zen, fiskalak, prozesu guztian egin duen bezala, defentsaren papera jokatu zuela. Eta ezin aipatu gabe utzi akusatuek instituzioen aldetik jasotako babesa, Lakuako Gobernuko zenbait ordezkari egunero egon baitziren aretoan, defentsaren abokatuen aholkulari.

ERTZAINEN GEZURRAK AGERIAN

Instituzioen paperari dagokionez, deigarria izan zen lekuko gisa deklaratu zuen ertzain batek onartu zuena: ikerketa egiten ari zen garaian denen artean bertsio bat asmatzeko poliziaburu eta Gobernuaren ordezkari eta abo-

Epaiketaren lehen egunean, 3389 ofizialak kargatzeko aginduak «sarraskia bilatzea» helburu izan zezakeela iradoki zuen. Bera izan da zigorra jaso duen ertzain bakarra

Epaiak prozesuan Ertzaintzak izandako jarrera eta egindako ikerketa «eskasa» salatzen ditu, eta aipatzen du ikerketa egokia egin izan balitz Iñigo zehazki nork hil zuen jakitea bazegoela

katuekin bildu zela aitortu zuen. Eskandalagarria.

Gauza bera esan daiteke, oro har, ertzainek 2012ko apirilaren 5eko gauean gertatu zenaz epai-
ketan adierazitakoaz. Gerra agertoki bat deskribatu zuten, herriko tabernaren plazan bildutakoen aurka zergatik oldartu ziren argudiatzeko. «Ehunka kaputxadun», harriak eta bestelako objektuak beren kontra... denetik esan zuten. Edo asmatu zuten. Izan ere, bertan zeuden lekukoek eta auzokideek polizien bertsioa ukatu zuten, eta epaileek ere sinesgaitzat jo dute ertzainek adierazitakoa. Baten bati zuzenean «egia ez esatea» leporatu diote, eta Poliziaren arduradunak ere oso ataka larrian jarri dituzte, egindako ikerketa «eskasa» izan zela baitezte, horri egozten diotelarik, neurri handi batean, Iñigo nork hil zuen ez jakitearen ardura.

Laburpen gisa esan daiteke epaiak goitik behera eraisten duela urteotan nagusi izan den bertsio ofiziala, Rodolfo Ares sailburu zenetik orain arte, bere lekuan Estefania Beltran de Heredia denean. Hots, ertzainak plazara heltzean ez zen borrokari bertan, aurretik liskarren bat egon zen, bai, baina ordurako igarota zegoen; poliziak heldu zirenean ez zieten eraso egin, aldiz, beraiek izan ziren beharrik gabe oldartu zirenak; eta ez zegoen inolako arrazoirik horrenbeste ertzain festa giroan zegoen leku batera bidaltzeko.

Han ez zen ezer txarrik gertatzen, eta hala ere jendetzaren aurka pilotak jaurtitzen hasi ziren. Zergatik? Epaiak «deskoordinazioa» aipatzen du, baina agian benetako arrazoa ertzain batek eman zuen: plaza hura «etsai-eremua» zen haientzat. Eta horregatik, etsaiak ikusten zituzten horiek lagunak baino ez zituen Pitu hil zuten.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



Lurmutur Hiria

Afrika osoko hiririk kosmopolitena

Modernotasunaren eta tradizioaren artean zambuluka dabilen hiri aldabera honek punta-puntako azpiegiturak ditu, mendi ikusgarriak, surfean ibiltzeko hondartzak eta fauna zoragarria.

Eta gainera: Kanbodiako hiriburuaren argi-ilunak • Etorkizuna Hammarby Sjöstad barrutiko kaleetan dago • San Petersburgoko gau magikoetan galdu gara...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

